



2008ko azaroko ALBISTEAK:

30+10 jardunaldiko hitzaldiak Interneten

Urriaren 23an Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan (IMH) antolatu zen Enpresa eta Hizkuntzen Kudeaketari buruzko 30+10 mintegiko bideoak eta aurkezpenak interneten jarri dituzte. Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren: *hizkuntzen kudeaketa enpresan* gaia lantzea, eta gaur egun dauden praktika onak enpresei ezagutaraztea merkatuak eskaintzen dizkien produktu, makina eta zerbitzuak euskaraz ere erabili ahal izateko.

IMH: <http://www.imh.es/albisteak/30-10-mintegiko-bideoak-eta-aurkezpenak/>

EraLan proiektua: lan munduan nola eragin erabileran?

Galdera honi erantzun nahi izan zaio azaroaren 13an Zamudioko Parke Teknologikoan Soziolinguistika Klusterrak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek antolatu duten topaketan. Proiektuak bi lan nagusi garatu ditu: lan esparruan euskararen erabileran eragiten duten faktoreak identifikatu, eta faktore horietan eragiteko interbentzioak diseinatzeko metodologia zehaztu eta aplikatu.

GFA euskara: <http://www.gipuzkoaeuskara.net/albisteak/1227086874>

Inazio Markori elkarrizketa: <http://www.gaur8.info/blogosfera/klik/45320>

Nabigatu euskaraz Interneten

Interneten euskaraz nabigatzeko dauden aukeren berri ematen du artikulu honek: Mozilla Firefox, Internet Explorer, Euskalbar...

Berria:

http://www.berria.info/paperekoa/plaza/2008-11-19/044/006/Nabigatu_euskaraz_Interneten._Gero_eta_ekintza_gehiego_egiten_dira_egun_Interneten_horregatik_tresna_ahalitsuak_bihurtu_dira_web_nabigatzaileak._Euskarazko_bertsioak_ere_badaude..htm

Euskara: enpresan kalitatera eta bikaintasunera iristeko tresna.

Ziurtagiriaren Elkarteak Euskaliten Kudeaketaren Kalitate eta Bikaintasunaren XIV. Europar Astearen barruan mintegia izan du Bilbon (2008-11-26), *Euskara enpresan txertatuz, berrikuntzarantz* izenburupean. Athletic Club edo Fremap bezalako enpresetan euskara txertatzeak eta Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeak nolako eragina izan duten azaldu zuten, besteak beste.

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1227784504

Korrika 16 Tuteratik abiatuko da heldu den martxoaren 26an 'Ongi etorri' lelopean

Korrika 16k aurtengo omenaldia gauzatzeko, alde batetik, Euskal Herrira heldu, euskara ikasi eta erabili, umeei irakatsi, gure kulturaz gozatu, berari ekarpen euskalduna egin, eta belaunaldi belaunaldi euskal hizkuntza transmititu duten milaka familia horiek izan nahi ditu gogoan; eta, bestetik, euskara galdu eta berrikasiz transmisioa ahalbidetu duten familia guztiak ere bai.

Diario de noticias de Navarra: <http://www.noticiasdenavarra.com/ediciones/2008/11/15/sociedad/navarra/d15nav10.1421511.php>

Iruña-Veleia: egia ala gezurra?

Veleiako idazkunak «faltsuak» direla diote ikertzaileek. Aztarnategiko lanen buruak iruzurra denik ukatu egin du. Iritzi ezberdinak irakurtzeko aukera duzue hemen.

Berria: http://www.berria.info/paperekoa/plaza/2008-11-20/042/004/Veleiako_idazkunak_faltsuak_direla_diote_ikertzaileek._Arabako_Diputazioko_aditu_taldeak_erabat_baztertu_du_Iruña-Veleiako_aurkikuntzak_III._eta_V._mendeen_arteak_direla_Adituek_diote_euskararen_historiarekin_koherentziarik_ez_dutela_idazkunek.htm

Sustatu: <http://feeds.feedburner.com/~r/sustatu/~3/459247133/1227160971>

Erabili.com: http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1227253829

'Ni ere banoa' BECera (Kontseiluak 10 urte)

Hamargarren urteurrena ospatzeaz gain, datozen urteotako ibilbidearen berri ere emango du euskalgintzako erakundeak. Barakaldon abenduaren 13an egingo duen ekitaldi erraldoirako doaneko sarrerak internetez har daitezke.

Berria: http://www.berria.info/albisteak/30244/Ni_ere_banoa_BECera.htm